

Martxoaren 8an greba deialdia Euskal Herrian

Asanblada feministak, erakundeak eta eragile ezberdinak bat egiten ari dira aurtengo greba deialdiarekin. Mobilizazio eta deialdi ezberdinak deituta daude / 12-15



"Pausoz pauso, martxoak 8 emakume" kalejira ibiltaria Andoainen, larunbat honetan / 10-11



Aukeran dantza taldearen "Biz hitza" ikuskizunaren aurre estreinaldia Saroben, larunbat honetan / 15



MAILA HANDIKO MOZORROAK

Bakarka eta taldeka, irudimen handiko mozorroak ikusteko aukera izan da. Andoainen lau egunez ospatu dute inauteria, Urnietan bi egunez. / 2-9



EMAKUMEAREN
NAZIDARTEKO
EGUNA 2019



MARTXOAK 8

18:30 Erakusketaren inaugurazioa
EMAKUMEEK ERE JOKATZEN DUTE
19:00 Elkarretaratzea, Plazan
19:30 POESIA CON FALDAS, Lekaion
Itziar Lazkano & Ainhoa Rincón

MARTXOAK 9

21:30 EMAKUME LANGILEEN AFARIA

MARTXOAK 15/22

22:00 ZINEGOAK, Lekaion
Laburmetraiak

MARTXOAK 16

19:00 7AK BAT - ATX TEATROA, Saroben



Fortnite talde handi samarra hurbildu zen San Juan plazara, larunbat arratsaldean. Bertan eskaini zituzten lehen dantzak, herrigunean zehar ikuskizunari jarraipena emanez. AIURRI

Pantailatik Urnietako plazara

Bideojokoetako protagonista ezagun ugari hezur haragizko bilakatu ziren Urnietako inauterietan. Just Dance, Fortnite, Wii Sport, League of Legends, Pang edota Sims4 bideojokoak gogora ekarri zituzten. Gehien nabarmendu zena Super Mario izan zen



Bosko Anitz txaranga, Urnietako ospakizunetan ezinbestekoa. AIURRI

Idiazabal kalea, mozorroen etorbidea



Matrioska biziduna Urnietako inauterietan. AINHOA



Matt Groeningek asmatu zuen familia ezaguna, Idiazabal kalean. GABIRONDO



Magale ikastetxeok Super Mario mozorroarekin dantza saioa eskaini zuten. AIURRI



Super Mario, aurtengo izarra. AIURRI



Sims4 bideojokoa, Magale ikastetxeko ikasle talde baten mozorroa. AIURRI



Super Mario bros gazteak Urrietako kalejiraren hasieran. AIURRI

Gazte bazkaria frontoian



'Wii Sport' jokoa irudikatu nahi zuen hirukotea. AIURRI



'Euro Truck Simulator' bideojokoaren zaletuak, argazkian. AIURRI



'Harry Potter' laguntaldea, gazteen arteko bazkarian. AIURRI



Lagun talde handienak 'Just Dance' jokoa irudikatu zuen. AIURRI



Etxeberri plazako inauteriari hauspoa eman dion taldea, argazkian. Igandeko bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI

Bi egunez inauteria Urnietan

Igandean Etxeberri plazaren inguruan inauteri festa txukuna antolatu zuten. Parte hartzailea eta alaia izan zen. Osagairik ez zen falta izan: Txokolate jate solidarioa, maskara tailerra, pintxopotea eta haur eta helduen mailako mozorro lehiaketa



Bideojokoak bikain irudikatu zituzten, koreografia eta guzti. Jolastoki taldeak jaso zuen taldekako lehen saria.. AIURRI



Mozorro ikusgarriak igande arratsaldean, Etxeberri plazan. AIURRI



Auzoko inauterizale gazteak, Etxeberritxo auzoko maskotarekin. AIURRI



Ikasleek kolorez bete zuten Goikoplaza, ostegun arratsaldean. AIURRI

Inauteri giroko astea Andoainen

Kaldereroetan lehen txinpartak nabaritu ziren, eta Ostegun Gizenean piztu zen metxa. Lau egunez jarraian Andoingo herrigunea inauteri giroan murgildu da. Bereziki, Ostegun Gizenean eta larunbatean. 40. urteurrenean, inauteria sasoiko dago Andoainen



Txilabak Andoingo kaleetan, ostegun iluntzean. Pintxopote musikatuak asteburua girotzen hasteko aproposa da. AIURRI

Inauterien hasierako protagonistak



Jendetza hurbildu zen Urigainera, sari banaketa ekitaldira. AIURRI

Maskara lehiaketa Maddi Miguel, Maialen Lopez, Areia Macieira, Oier Audikana, Beñat Izagirre, Uxue Julian, Leire Nuñez, Unai Peñalbo eta Oihana Escudoren lanak saritu zituzten. Ehun haur eta gaztek parte hartu dute aurtengo edizioan.



Olagain txistulari taldea. AIURRI

Kalejira koloretsua Olagain txistulari taldea eta herriko musikari eragile ugari Ostegun Gizena alaitzen aritu ziren. Inauteri giroan murgiltzeko pintxopote musikala guztiz aproposa da. Goizean goizetik haurrek ekarri zuten inauteri festa, eta iluntzean helduek.



Udal musika eskolako haurrak ostiral arratsaldeko emanaldian. AIURRI

Dar dar ipuin musikatua Udal musika eskolaren inauterietako kontzertua ostiral arratsaldean izan zen. Zizareak, saguzarrak, sugeak eta armiarmak oholta gainean irudikatu zituzten, hori bai, musikaz lagunduta.



Erraldoi eta Buruhandien konpartsak kalejira egin zuen larunbat goizean, Zumea plazaraino. AIURRI

Larunbata, egun handia Andoainen

Talde antolatuak kopuruan gehienak badira ere, banaka edo talde txikietan mozorrotzen direnak askotxo dira. Klasikoak alde batera utzita, irudimen handia erakusten duten mozorroak izaten dira arreta eta irri gehien lortzen dituztenak



Soinuak musika eskolako ikasleek kalejira egin zuten herrigunean, larunbat goizean. AIURRI



Txalo handia merezi du. AIURRI



Inauteria, festazaleen eta mozorrozaleen kriptonita. AIURRI



Bidaia beldugarriak eskaintzen aritu zen 'Viajes Satan' konpainia. Edonor ez litzateke horiekin bidaiatzera animatuko. AIURRI

Inauterien jarraipena igandean



Lupercales taldekoak igande eguerdiko bazkarian. AIURRI

Urteurreneko bazkaria Inauteriaren 40. urteurrenarekin bat eginez, herri bazkaria antolatu zuten Goikoplazan. Karpara hainbat inauterizale hurbildu zen, bazkariaz eta sagardoaz gozatzen. Arratsaldean kalejira musikatua egin zuten, Rockalean taldearekin.



Modako jolasean oinarritutako mozorroa, Bastero inguruetan. AIURRI

Merkatariak inauteriarekin bat



Txindoki taberna, Kale Nagusian. AIURRI

Inauteri giroa Tabernari eta dendari ugari inauteri giroan murgildu ziren, merkatalguneak apainduz. Herrigune osora zabaldu zen, gainera. Askoren artean aipa daitezke Gamer, Anita, Amantegi, Stop, Betilore, Muga eta Irunberri tabernak...




Familia osoa bat eginda. AIURRI



Edertasun handia lor daiteke bizpahiru elementurekin. AIURRI



Arruti, Zumea kalean. AIURRI



Etxeberría, Kale Nagusian. AIURRI



Somos la hostia konpartsako kideak edertasun handiko mozorroekin agertu ziren konpartsa desfilea. AIURRI

Maila handiko konpartsak

Hogeita bi konpartsatan bostehun lagun irten ziren larunbat arratsaldeko mozorro desfilean. Ospakizunean garrantzia handikoak dira, eta begirada gehienak hauengan jarirta zeuden. Baina bakarka eta talde txikietan ere mozorro polita ikusi ahal izan ziren



Zeresan handia eman zuten Athleticen jokalariek. Valentziaren aurka galdu zuten, baina Andoainen garaile argiak izan ziren. AIURRI



Ikusgarritasunean parekorik ez zuten izan. Lanketa bikaina egin zuten. AIURRI



Poperoak, desfilearen hasieran. AIURRI



Akelarre biziberritu zuten Patsadan taldekoek, giro ederra sortuz. AIURRI



Herri kirolak, rugbya, futbola, tenisa..., kirol jarduera ezberdinen bilgunea bilakatu zen konpartsa. AIURRI

Txikiekin batera ospatzeko eguna



Andoaingo animaliak. AIURRI



M.G. taldeko konpartsa. AIURRI



Kutxipandi taldea. AIURRI



Aho Rita Zapatariak konpartsa. AIURRI



Sandra Barrenetxea Berdintasun teknikaria, Ane Lazkano, June Mateo, Asun Garcia, Julia Corbo, Maria Lazaro, Yolanda Canora, Izaskun Jauregi, Paula Nogales, Ane Jalon, Arantza Etxeberria, Eli Arrese eta Esti Mujika zinegotzia. AIURRI

Ospakizuna eta aldarrikapena

“Emozio kolektiboen topagune” bilakatu zen aurtengo martxa-kalejirako izendatuen aurkezpen ekitaldia, Jone Larrañaga aurkezleak ondo definitu zuen bezala. Larunbatean eguerdiko 12:00tan abiatuko da “Pausoz pauso” kalejira, Bastero plazatik.

Xabier Lasa ANDOAIN

Aurten omenduko dituzten herrikerideen izenak aditzera eman zituzten Basteroko erakusketa gelan. Jone Larrañaga kazetariak gidatutako aurkezpen ekitaldian, omenduek euren bizipenak kontatzeko aukera izan zuten. Hunkigarria izan zen hainbat kasutan, bizitzan aurrera egiteko erakutsi duten kemenagatik.

Maria Lazaro eta Paula Nogales

Seme-alaba ugariko familiak aurrera ateratzeko egundoko ahaleginak egindako bi emaku-

me dira. Maria Lazarok bere testigantza latza eman zuen ekitaldian; modu gordinean hitz egin zuen, bizipen pertsonalak aipatuz: “Salamancatik 17 urterekin heldu nintzen. Donostian etxe batean zerbitzen aritu nintzen lehenbizi, eta gerora, nire seme-alaben aita izango zena ezagutu nuen. Hil zen arte, ederki mikaztu zidan bizitza! 15 urtetan hamaika seme-alaba eduki nituen, eta aparte, abortu bat. Prostituta baten antzera jokatzera derrigortzen ninduen, eta pelikuletan bezala, ileetatik arras-

taka ibiltzen ninduen; bere bizioetan xahutzeko dirurik ez banuen eramaten etxera, jipoitu egiten ninduen. Senarrari ahotsa altxatzerik ezin zeneko garaiak ziren haiek... Dibortzioaren legea atera bezain pronto, hamaika umeak hartu eta etxetik ihes

**KALEJIRA
BASTEROTIK
GOIKOPLAZARA,
LARUNBATEAN
12:00TATIK AURRERA**

egin nuen. Oso mendekaria zen gizona, eta batzuetan bidean zelatan edukitzen nuen; horrela, hil zen arte. Miraria izan da ni bizirik irtetea. Urteetan nahiko bizimodu tristea bizitzea egokitu izan zait: egunez etxeetan garbiketa lanak egiten, eta gero arratsaldeetan, txatarra eta kartoiak biltzen, baldin eta umeek hurrengo egunean ogia jateko edukiko bazuten.

Inori ez diot opa nik sufritu dudana, eta etxean antzeko panorama daukan edonori esango nioke kitto esateko agudo batean. Ez du merezi hala bizitzerik! Indarrak bildu, eta zaila zen erabakia hartu nuen behingo batean. Igaro dira garai makur horiek, lasaiago bizi naiz baina betirako geratu zait nerbioak ezin baretuaren gaitza. Ni bezalako jendeari aitormen publikoak egiten zaizkie gaur egun, eta horrek asko poztzen nau”.

Yolanda Canora

Andoaingo udaltzaina. Duela berrogei urte egin zen udaltzain; aitzindaria izatea egokitu zitzaion, aurreiritzi ugari eta froga gogorak gauditu ostean: “Zarautzen ikusi nuen lehen emakume udal-

tzaina, eta orduan konturatu nintzen posible zela. Andoaingo Udalak lan eskaintza zabaldu, izena eman eta plaza atera nuen. Oraindik, gizonezkoen lanpostutzat ikusten da lanbide hori”.

Andoaingo Musika Banda Errepublikanoko emakumeak

Bandan gehiengoa osatzen dute, eta musikaren bitartez, Errepublikan eta frankismoan zehar beren eskubideen alde borroka egin zuten emakumeen oroitzapena plazaratzen dute. Arantzak eta Elik hartu zuten hitza, taldearen izenean: “Kantari arituz, emakumeen historia aldarrikatzen saiatzen gara. Garai sozio-politiko gogorra bizitu zuten gure aurreko askok. Gure amonek borroka egin zuten bere garaian, eta haiei esker, esaterako, Errepublikan lortu zuten bozkarako eskubidea, edota, goi mailako eskoletara joan ahal izatea magisteritza eta beste ikasketak egiteko... Gero, 1936ko kolpe militarrek dena pikutara bidali zuen. Guk etxean amonekin ikasi eta kantatu ditugun abestiak plazara eramaten ditugu urtero, apirilaren 14a egiten den omenaldi ekitaldian”.



Esti Mujikaren eskutik jaso zuen saria Maider Arabaolazak. AIURRI

Erakusketaren irekiera, ostegunean

Hilabete osoan zehar luzatuko den programazioa antolatu du Andoaingo Udalak. Aurtengo irudi nagusia Maider Arabaolaza Agirrezabal gaztearena da, berak irabazi baitzuen Udalak deitutako lehiaketa. Etxebizitza guztietako atarietan ipintzen ari dira egitarau osoa biltzen duen programa. Larunbaterako, esaterako, martxa-kalejira, emakumeen pala txapelketa eta emakume afaria iragarri dituzte. Asteburu osoan zehar, Basteroko zinema programazioan, berdintasunaren bidean kasu erreala islatzen duen "Una cuestion de genero" filma eskainiko dute. Andoaindarrentzat bada beste ekitaldi kuttuna, arrakastatsua izango dena. Ostegun honetan zabalduko baitute "Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak" erakusketa. Basteron izango da, 19:00tan hasita.

Ane Jalon

Eskopeteroa da, Santa Krutz jaietan lehen emakumea: "2011ko maiatzaren 2an, lagun batek galdetu zidan ea zein orduetan irteten ziren eskopeteroak. Aitari galdera egin; hark esan zidan hurrengo urtean neuk atera beharko nuela. *Eta aurten, zergatik ez?*, galdera eginez erantzun nion nik. Aldamenean zegoen amak, orduan, agindua eman zidan: *Bada, orduan etxera, parrandarik egin gabe*. Irusta kapitainak ere ondo ikusi zuen aldaketa. Neurri batean, gizonen gonbidatu ninduten parte hartzera eta eskertzen da hori".

Julia Corbo Bonilla

Ambrosia Olabideko jubilatuen tabernako langilea da. Uruguaiarra jaiotzez: "Hamabi urte dira Andoainera heldu nintzela, sei bat hilabete egingo nituela pentsatuz. Baina maitemindu egin nintzen Andoaingo herriarekin, eta bertan geratzera erabaki nuen. Uruguain emakumeen inguruko lan sozialak egin izan nituen, eta nahiko ondo ezagutzen dut emakumea izate hutsagatik maiz jasan behar izaten den bazterke-

ria. Euskal Herrira etorri aurretik, Mallorcan emakume emigrante asko gertu-gertutik ezagutu nituen. Oso egoera zailean bizi ziren".

Izaskun Jauregi

Urteak daramatza Allurralde kiroldegiko gimnasia eta igeriketako ikastaroetako irakasle gisa; aldi berean, emakume korrikalari egitasmoaren gidaritzaz darama azken urteetan. "Emakumeei bideratutako ikastaroak zuzentzea egokitu izan zait kiroldegian, eta horri esker konurtatu naiz kirolak zenbat balio duen emakumea ahalduntzeko. Aktibitate fisikoa egiteaz gain, emakumeak emakumeekin biltzen eta elkarrekin gauzak egiten laguntzen du. Onura fisikoak eta psikologikoak eragiten dituela kirolak, alegia. Emakume batzuk igual ez dira animatzen bakarrik aritzera, baina batuta errazago ematen dute pausoa.

Emakume korrikalaria egitasmoa sortu zenean, egundoko poza hartu nuen talde hura zuzentzeko ni aukeratu nindute-lako. Ikasturte honetan 17 emakume daude izena emanda. Denetik dago horien artean;

tartean badira korrika egiteko oinetakorik inoiz jantzi ez zutenak. Bilakaera bizi izan dute astez aste, eta egun, maratoirako ere ari dira prestatzen".

Asun Garcia "Txonci"

Distrofia muskularra jasaten du, baina bizitzari kementsu aurre egiten dion emakumea da. "Hunkitu nintzen izendapenaren berri emateko deitu zidatenean. Ez nuen espero. Harrotzeko moduko gauza da besteek ni emakume borrokalaritzat hartzea. Bizitzari aurre egirik alaiena erakusten saiatzen naiz. Orain 17 urtetik hona jasaten dut gaixotasuna; nire semea jaio eta berehala egin zidaten diagnostikoa, gaixotasun arraro horietakoa pairatzen nuela eta ez zeukala tratamendu jakinik. Urte eta erdiko semea edukita, erabaki nuen ezin nintzela lur jota geratu eta bizitzari filosofia baikorraz egin behar niola aurre. Eta halaxe jardun dut, noizean behin gora beherak eduki arren. Sufrimendu motaren bat duen orok, antzera jokatu beharko luke. Alderdi itxaropentsuei helduz, eta ez korrenak baztertuz".


Ane eta Edurne gazteak

Aldarrikapen feministak kale-ratzen urteak daraman Andoaingo asanblada feministako bi kide dira: "Asanbladaren izenean gatoz. Gu biok ikastolan hasi ginen emakumeen aldeko proiektu txikiak garatzen. Iazko ikasturte amaieran herri mailan zerbait gehiago egin behar genuela pentsatu genuen, ekimen zabalagoren bat gizarte osora iristeko asmoz. Era horretan, Andoainen martxan zegoen emakumeen asanbladan integratu ginen. Lehen unetik, lan dina-

mika polita igarri dugu taldean: ideiak eta kemena gainezka dau-de ekimenak aurrera eramateko (antzerkia, manifik...). Asanblada adin askotako jendearen bilgunea da, eta esan dezakegu gu gazteenak izanik, hasieratik helduagoen babesa eduki dugula. Ederra da zein natural gartzen den belaunaldien artekotatzen den hori. Denok berdinak sentitzen gara, ez gazteago ezta zaharrago ere. Azken aldian martxoaren 8ko ekitaldi sortaren inguruan antolaketa lanetan ari gara buru belarri".



andoaINDARRA
euskaraz



"Poesia con faldas". PABELLON N6

Ekitaldi sorta martxoaren 8aren harira antolatutakoak

Asteburu honetan ekitaldi ezberdinak, eta aurrerago antzerkia euskaraz eta Zinegoak zinema zikloa

Erredakzioa URNIETA

Ekitaldiak martxoaren 22ra arte luzatuko dira. Zinegoak zikloa eskainiko dute aurrerago

Martxoak 8, ostirala

18:30 San Juan plaza.

"Emakumeek ere jokatzin dute erakusketa".

19:00 San Juan plaza.

Elkarretaratzea.

19:30 Lekaio.

"Poesia con faldas" Angela Figueroren poetaren berrikuspen historikoa.

Martxoak 9, larunbata

21:30 Oianume.

Emakume langileen afaria.



Mikel Pagola Urnietako alkatea eta Maite Peña Gizarte Zerbitzuetako Foru Diputatuak, otsailaren 28ko agerraldian. UDALA

Adinekoen egoitza berria

Urnietan, bizpahiru urtetan, aldaketa handiak ekarriko dituzten azpiegituri buruzko akordioak eman zituzten aditzera Maite Peña Aldundiko Gizarte Politikako diputatuak eta Mikel Pagola Urnietako alkateak

Xabier Lasa ANDOAIN

Maite Peña Foru Diputatuak iragarri zuenez, Urnietako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Urnietan adinekoentzat 120 plaza edukiko dituen egoitza eraikitzea adostu dute. "Horre-

tarako, Udalak Aldundiari lur sail bat lagatuko dio. Egia da, egun, itxaron zerrendaren ikuspuntutik Urnietan ez dagoela behar handirik; bai, ordea, Betterri-Buruntza eskualdeko beste herrietan".

Peñak adierazi zuen bi erakundeek lortu duten akordioa lehen-go pausoa izan dela, eta jarraian gehiago etorriko direla egoitza berria errealitate bihurtu arte. Gure gizartea zahartzen ari dela, eta zahartzaro prozesu horri

aurre egiteko Adinberri izeneko estrategia integrala bideratu du Aldundiak: "Estrategia horren baitan, etxean ematen dugun arreta guztia indartu nahi da, batez ere adinekoen pertsonen beraien etxean egon nahi dutelako. Baina hori posible ez bada, etxean bezala bizi daitezkeen lortu behar da. Alde horretatik, legealdi honetan 361 plaza zabaldu ditugu jada, eta aurreikusita dagoenez, etorkizunean 446 plaza gehiago zabalduko dira".

Mikel Pagolak adierazi zuen 2020. urtea amaitu baino lehen lagatuko diola Udalak Aldundiari eraikina egiteko lur zorua. Aldundiak erakutsi duen jarra irekia goraiatu zuen Pagolak. "Urnietari ez ezik, eskualde guztiari egingo dio mesede azpiegitura berri horrek, gaur egun dagoen itxarote zerrenda arintzen lagunduko duelako".

Lankidetzaz hitzarmen ugari sinatu dituzte azken aldian

Adineko pertsonen eskaintzen zaien tutoritzapeko etxebizitza zerbitzua hobetzeko pisu berriak egingo ditu Aldundiak. Gaur egun, Urnietako Udalak Idiazabal 46-48 kalean eskaintzen du zerbitzua, baina etorkizunean instalakuntzak Etxeberri plaza-ramango dituzte. Etorkizuneko egitasmo hori bermatzeko Udalak eta Aldundiak protokoloa sinatu dute.

Bestalde, Anbulatorio zaharrean dagoen Denda Berri zahar egoitza eraberrituko dutela iragarri dute. Obraren lehenen zatian eraikinen aurreko partean esku-hartuko da, isolamendu termikoa jarri eta uren filtrazioak deuseztatuz. Aldundiak 450.000 euroko ekarpena egingo du. Obraren bigarren zatian barrualdeko esku-hartze integrala egingo dute.

Mugimendu feministen deialdiekin bat egin du Udalak

Ordezkaritza duten hiru alderdi politikoetako kideak ostiraleko deialdiarekin bat agertu dira

Erredakzioa URNIETA

"Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean, udaletik ere planto egitea eta

bizitza erdigunean jartzea aldarrikatuko dugu". Udalak, besteak beste, erabaki hauek hartu ditu:

- "Udalak berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzeko ardura hartzen du".

- "Udalak zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko ardura hartzen du".
- "Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko ardura hartzen du".
- "Herritarrak deitzen dituen Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzea".



Artola (EH Bildu), Vaquero (EAJ-PNV) eta Frutos (PSE-EE). UDALA



Maddalen Estarloa, Osane belardendako arduraduna. AIURRI

Gertuko tratua bezeroarekin

Bukatu ez den bidaia hasi zuen Maialen Estarloa hernaniarrak hiru urte atzera. Idiazabal Kalean dagoen Osane belar dendaren kargu egin zen, eta pixkanaka, tokia egin du urnietarren erosketa zirkuituan

Andoni Urbistondo URNIETA

Toki ezin hobean dago denda, Idiazabal kaleko 32. zenbakian, eta gizartea ere gero eta arduratuago omen dago osasun eta produktu biologikoekin. Maialenek lan orduak pixka bat murrizteko erabakia ere hartu du, bezeroak osasuntsuago zaintzeko.

Nor da Maddalen Estarloa?

27 urteko hernaniarra, nutrizionista. Gasteizen egin nituen ikasketak, ondoren gradua eta master bat ere bai, kirol elikaduran, on line bidez. Realean praktikak egin nituen. Hainbat belar dendatan ere trebatu nintzen, Tolosako Gorrotxategi belar dendan, besteak beste, eta halako batean, Urnietan negozio hau eskuz aldatzen zela jakin nuen, eta informazioa jaso nuen.

Itxura ona hartu, animatu, eta horrela hasi nintzen. Ikasle nin-

tzela, nire aurreikuspenen artean ez zegoen jendaurrean lan egitearena, baino horretan bukatu dut, oraingoz. Dagoeneko hiru urte bete dira erabaki hori hartu nuenetik.

Garbi zeneukan gaztetan nutrizionista izan nahi zenuela?

Ez, egia esan. Txikitatik elikaduraren kontua asko zaintzeko joera izan dut. Gurasoek hori transmititu izan didate, eta haiek gaixotzen zirenean, haiek sendatzeko grina, interesa sortzen zitzaidan. Hortik sortu zitzaidan lanbide honetan murgiltzeko arra.

"TXIKITATIK ELIKADURAREN KONTUA ASKO ZAINTZEKO JOERA IZAN DUT"

Kirol elikadurako master-a egin nuen, baina gaixotasunen jatorriek-eta asko erakartzen naute.

Pozik zaude duela hiru urte hartu zenuen erabakiarekin?

Bai, gustura nago. Azkar hartu nuen negozioa nire gain hartzeko erabakia, eta hiru astetan denda berriro martxan zegoen. Bere alde onak eta txarrak ditu, jakina, baina gustura nago. Ordu asko dira dendan, baina orain dela gutxi asteko goiz pare batean ordu batzuetako librantza egiten hasi naiz, eta horrek

"JENDAURREAN LANEAN ARITZEAK NI NEU EZAGUTZEKO BALIO IZAN DIT"

lanera bueltatzeko kemen handiagoa ematen dit.

Zer zenekien Urnietari buruz, etorri aurretik?

Batez ere jaioterrian ez nuela lanik egin nahi. Urnieta Hernanitik gertu dago, eta Urnieta lanarekin lotzen dudana moduan, Hernani aisiarekin lotzen dut. **Zer da zure jardunetik gehien gus-tatzen zaizuna, eta zer gutxien atsegin duzuna?**

Gustukoena, jendaurreko lanak ni neu ezagutzeko balio izan didala, lehen esan bezala, txikitari amari askotan esaten niolako ez nintzela jendaurreko jardun batean murgilduko. Bezeroari irribarre batekin entzutea erraza egiten zait, elkarrizketa bat edukitzea bezala. Jendea laguntza eskaintzen diodan neurrian ni neu ere asko aberasten ari naiz bezeroen interakzioarekin, eta horrek ez du preziorik. Txanponaren bestaldean, ba ordu asko egiten ditudala lanean. Zure negozioa den neurrian, buruhauste handiak sor daitezke, baina tira, egunean egunekoa bizitzeko joera dut, eta gaur Urnietan nago, eta oso gustura. Gero-gerokoak.

Ze harrera sentitu duzu urnietarren aldetik?

Oso jende ona ezagutu dut. Ez didate inolako arazo edo trabarik jarri, inork, eta oso kontent nago.

Ziur aski herrian jende gehien pasatzen den tokian daukazu belar denda.

Gertatu izan zait denda aurretik askotan pasa, belar denda bat zegoela jabetu ez, halako batean jabetu, sartu, eta zer gertatu zaion azaldu didan jendea. Herriar asko pasatzen da hemendik, bai. Zaldundegi dela, Etxaniz burdindegia, ikastolara bidea, autobus geltoka... Mugimendu handia dago.

Izena nola erabaki zenuen?

Zeukana uztea erabaki nuen. Osane gaztelaniaz "Remedios" omen da. Gustatu zitzaidan, eta jendeak denda izen horrekin identifikatzen duenez, halaxe uztea erabaki nuen.

"HAURRAK DITUZTEN BIKOTE GAZTEAK DIRA BEZERO OHIKOENAK"

Epe ertain edo luzean hemen ikusten al duzu zeure burua?

Bai, bai. Ez daukat aldatzeko batere arrazoirik.

Zure lanbidea ez da erraza izango. Jakinduria handia izan behar duzu bezeroari zer komeni zaion azaltzeko garaian. Alegia, hona hurbiltzen den bezeroa ez dela ogia erosi eta martxa egiten duen horietakoa.

Bai, bezeroari konfiantza ematea derrigorrezkoa da belar denda batean, osasunaz ari garelako. Nik neuk ere zailtasunak izaten ditut sarri, baina zailtasunak argitzen, edo jakintza aberasten laguntzen nauten naturopatak ezagutzen ditut.

Jende asko ikusten da dendan.

Joera agerikoa da jendea belar dendan saltzen dituzuen produktuak gero eta interes handiagoa pizten diotela.

Bai, guztiz. Ez dakit dena geroz eta kutsatuago daudelako den edo zergatik, baina supermerkatu handietan ere belar dendetan saltzen ditugun produktu biologikoak saltzen hasi dira, eta horrek eman den aldaketa ezin hobe azaltzen duela esango nuke. Ez urrun, ni bezalako jendea ginen arraroak, arto txikia edo bestelako produktuak kontsumitzen genituelako. Orain eguneroko kontua da, jende guztiak jaten du quinoa delakoa, olo esnea... Igual gehiegi arduratzen hasi gara gure osasunaz, baina tira...

Nolakoa da hurbiltzen zaizun ohi-ko bezeroa?

Gaztea, batez ere. Umeak dituen bikote gazte asko dago herrian. Herriko osasun zentroko Julia emaginak eta Geru erizainak ere zerikusi handia dute gazteek hartu duten joera horretan, produktu naturalak erabiltzeko aholkuak ematen dituztelako. Ama eta ume asko etortzen dira. Helduak ere etortzen dira, baina bikote gazteak euren umekin, batez ere horiek.

Osane ez da belar denda soil bat, askoz zerbitzu gehiago eskaintzen dituzu.

Bai. Ordua hartuz hainbat aukera ematen ditugu. Javier akupuntore eta naturopata as-teazkenere etortzen da, bi ostegunez behin nutrizionista bat etortzen da, Noelia, dieta kontsultak pasatzeko. Ederne masajista, Juankar kinesiolegoa, Ahinitz elikadura makrobiotika aditua ere etortzen da, intolerantzia zein elikagairi diogun argitzeko eta beste...



ZABALIK

ANDONI URBISTONDO KAZETARIA

Pil-pilean

SASKIBALOIA Ahoa bete izan zaigu, Euskal Herriko kirolaren eszelentziak kontatuz. Kontaketa horren ardatz nagusi gizonezkoen kirol diziplinak zirela jabetu gabe. Edo okerragoa dena. Jabetuta ere oharkabean pasatzen utzita. Saskibaloiaz idazten, informatzen hamarkada bi egingo ditut laster, eta jardun horretako %98 edo %99 gizonezkoen saskibaloia izan du ardatz. Argudio orok baitauka bere kontra argudioa. Oihartzun mediatikoarena? Ados. Eta zer? Ez al dute merezi kirol guztiek atentzio bera, bada? Informatzeko baliabide eta erraztasunak askoz handiagoak izan dira gizonezkoen saskibaloian, emakumezkoenean baino. Eta zer? Kazetari batek informatu nahi badu, mugitu egin behar du, iturriak bilatu, gauza ezberdinak kontatu!

Bera-Bera ari da. Realta eta Athletic ari dira. Eta euskal saskibaloia ere ari da. Sartu da zirimolan, eta buelta eta buelta denen ahotara iritsi zen pasa den asteburuan, Gasteizen jokaturako Erreginaren Kopa Txapelketarekin. Ez da kritika bakar bat bera entzun antolakuntzarekiko, eta horrek Araski kluba, Gasteizko Udala eta Euskadiko Saskibaloï Federazioa zoriontzera behartzen gaitu, derrigor. Oso lan ona egin dutelako. Mendizorrotz pabilioi zaharra ederrestu zuten, hiria Araskiren koloreekin jantzi, kale eta etorbideak kalejira alai eta soinuetsuarekin zipriztinduz. Eta 4.500 lagunentzako pabilioia bete zuten egunero, Erreginaren Kopa Buesa Arena erraldoian jokatu behar zela kritikatu zutenak isilaraziz. Hobea baita 4.500 laguneko pabilioi bete, 15.000koa erdizka betetzea baino.

Hiru euskal talde aritu dira Gasteizen: Donostiako IDK, Gernikako Lointek, eta Gasteizko Araski. Final aurrekoetan aritu zen Gernika, baina ezin ezer egin Espainian oso nagusi den Salamancako Perfumerias Avenida txapeldun handiaren aurka. Haiek zortzigarren Kopa titulua ospatu zuten, baina euskaldunentzako ospakizun goxoena harmailetan zegoen. Gernikako gorriak, Donostiako zuriak eta Gasteizko berdeak, denak elkarrekin, kolorea ematen berez kolore handia hartu duen kirol diziplinari. Euren jokalaria heroiak bailira agurtzen, Mikel Laboaren Txoria Txori doinu ezaguna ozen abesten zuten bitartean.

Keinuek asko balio dute. Azu Muguruza IDK taldeko entrenatzaileak Gernikako Mario Lopez entrenatzailea eta Naiara Diez kapitaina besarkatu zituen prentsa aretoan, galduta ere. Lehenxeago, hau bota zuen, zintzo: “Gu harmailan egongo gara bihar Gernika animatzen. Ezin du bestela izan”. Esaldi hori beste kirol diziplina batzuetara esportatuko bagenu jendartea askoz aberatsagoa izanen litzateke.



Unai Galartzak tarteko helmugen saria irabazi zuen. ANDOAINGO

Abiatu da denboraldia

TXIRRINDULARITZA	
KADETE MAILA	
BEASAIN. SAILKAPENA	
1	Eneko Arrospide (Limousin-Oriako)
2	Roman Zabaleta (Viveros San Anton)
3	Igor Gonzalez (Dinuy)
10	Iker Atxaga (Andoaingo)
41	Peru Alkain (Andoaingo)
63	Mikel Goikoetxea (Andoaingo)
64	Ibai Omeñaka (Andoaingo)
65	Unai Galarza (Andoaingo)
74	Ekain Mitxelena (Andoaingo)
80	Iker Balbas (Andoaingo)
96	Iker Atxaga Robles (Andoaingo)
105	Ibai Vela (Andoaingo)
Luzera: 50 Km.	
Irabazlearen batz bestekoa: 38.59 Km/h.	



Gipuzkoako BTT txapelketan, Izaro Etxarri bigarren izan zen. ANDOAINGO

KARTELDEGIA:	
FUTBOLA	ARETO FUTBOLA
PREFERENTE MAILA	SENIOR MAILA
SAILKAPENA	EMAITZA
1 Euskalduna 56 puntu	CD Aldaz-Euskalduna 3-0
2 Touring 46 puntu	
12 Urnieta 21 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA	
Euskalduna-Hernani	
17:30 Urnieta-Dunboa / Lar, 9	
GORENGO MAILA, NESKAK	
IGOERA FASEA. EMAITZA	
Urnieta-Hernani 1-0	
SAILKAPENA	
1 Intxaurdi 9 puntu	
2 Urnieta 9 puntu	
3 Aloña Mendi 6 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:00 Mutriku-Urnieta / Lar, 9	
JUBENIL MAILA, OHOREZKOA	
EMAITZA	
Mondragon-Euskalduna 0-1	
ASTEBURUKO PARTIDA	
Euskalduna-Urola	
KADETE MAILA, OHOREZKOA	
EMAITZA	
Euskalduna-Hernani 3-1	
ASTEBURUKO PARTIDA	
Hondarribia-Euskalduna	

ASTEBURUKO PARTIDA	
Euskalduna-Gure Txokoa	
SASKIBALOIA	
ASTEBURUKO PARTIDA	
09:00 Ganbara Inf txiki-BKL / Lar, 9	
ESKUBALOIA	
SENIOR MAILA	
GIPUZKOA 1. MAILA	
Urnieta-Pulpo 27-26	
SAILKAPENA	
1 Munttarpe 28 puntu	
2 Urnieta 23 puntu	
ASTEBURUKO PARTIDA	
Urnieta-Aritzbatalde	
KADETE MAILA, NESKAK	
EUSKADIKO KADETE LIGA	
Urnieta-Usurbil 30-18	
ASTEBURUKO PARTIDA	
12:30 San Adrian-Urnieta / Ig, 10	

Nora Mendizabal

Orduñako emakume taldeak eta bertako pilotazaleek sekulako giroa jarri zuten pilotalekuan. Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketako finalaurrekoak Gordexolan jokatu dira, larunbatean (17:00): Ruiz de Infante-Mendizabal // Etxegarai-Oses. Mendiburu-Salsamendi// Granada-Lakuntza.



AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 38 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi (Urnieta).
Diseinua: Goiiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldikari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

ERROITZ

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENIA:

ZIURTAGIRIA:

ERROITZ

ALIATUAK:

INSTITUTU

TOKIKOM

Unistako udalo

Gipuzkoako Foru Aldundia

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

IV EMAKUMEEN PALA TOPAKETA

Martxoak 9

17:00etatik aurrera

Andoaingo

Arrate Frontolan

Topaketa IREKIA:

Edonork hartu dezake parte!!



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 7

ANDOAIN Martxoak 8
"Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak" argazki erakusketa.
19:00, Bastero. Irekiera ekitaldia.

ANDOAIN Greba deialdia
19:00, Pintxopote musikala.

OSTIRALA 8

ANDOAIN Greba orokorra
Ekimen ezberdinak iragarri dituzte.
09:00, Karabana Makaldegitik.
11:30, Manifa Goikoplazatik.
14:30 Bazkaria Juanita Alkainen.
19:00 Manifestazioa Donostian.

URNIETA Martxoak 8
Elkarretaratzea.
19:00, San Juan plaza.
"Poesia con faldas" ikuskizuna.
19:30, Lekai.

LARUNBATA 9

URNIETA Mendi ibilbidea
Zilegimendietan barrena, Luis Mari Zalduaren gidaritzapean.
10:00-14:00, Besabi. Dohainik.

ANDOAIN Andaluziako eguna
11:00 Marrazketa, txokolate-jatea.
14:00 Herri bazkaria.

ANDOAIN Martxoak 8
"Pausoz pauso" martxa-kalejira.
12:00, Goikoplaza.
Bazkaria, Zuenak antolatuta.
14:00, Oianume.



Ikuskizuna iragartzeko argitaratu duten irudietakoa. DAVID HERRANZ

URNIETA "Biz hitza" ikuskizunaren aurre estreinaldia
"Biz hitza" ikuskizuna. Xabier Payak idatzia eta Edu Muruamendiarazek zuzendua. Aukeran dantza taldearen ikuskizun berriena, Euskaltzaindiaren mendeurrenarekin bat egiten duena.
Martxoak 9, larunbata. 19:00, Sarobe. Sarrerak dagoeneko salgai.

ANDOAIN Ospakizuna
Sagardo festa Gaztetxean.
14:00, Bazkaria.
18:00, Erromeria: Gozo-gozo.

URNIETA Martxoak 8
Emakumeen afaria.
21:30, Oianume.

IGANDEA 10

ANDOAIN Andaluziako eguna
11:30 Brindisa.
12:30 Zumba eta Kangoo saioa.
14:00 Trianaren dantza emanaldia.

16:00 Zumbalokura.
18:00 Jaiaren amaiera.

ASTEAZKENA 13

ANDOAIN Martxoak 8
Saharako nazioarteko bilkuran izan diren Zuen, Asanblada Feminista, Hurria-Sahara eta Berdintasun saileko ordezkarien lekukotza.
18:30, Bastero.


"8 emakume, 8 zapore", munduko zaporeen dastaketa.
19:30, Bastero.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 9 eta igandea 10
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA
Larunbata 9 eta igandea 10
AGUADO: Nagusia, 21 (Eroski parean).
943 550 327. Hernani.
GAUEZ, BI HERRIETAN: ALDABE.
943 336 022. Hernani.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Alaitz
Martxoaren 8an, 7 urte. Irrikitan egun hori elkarrekin ospatzeko. Jarraitu hain jator eta alai izaten.



ANDOAIN Iratxe
martxoaren 13an, 10 urte. Egun ederra pasa eta ederki ospatu zure familia eta lagunekin.Muxu handi bat maitea.



ANDOAIN-OIARTZUN Enak
Martxoaren 15ean 8 urte beteko dituzu. Muxu asko amonaren eta familiaren partetik! Ondo pasa!



ANDOAIN Marika
Martxoaren 8an 10 urte beteko ditu. Hau emakume puxka! Ondo pasa zure urtebetetze egunean.

ZINEMA



ANDOAIN BASTERO La Lego 2
Larunbata, 9: 17:00.
Igandea, 10: 17:00.
Una Cuestion de Genero
Larunbata, 9: 19:30; 22:00.

Igandea, 10: 19:30.
Astelehena, 11: 19:30; 22:00.

URNIETA SAROBE Dantza
Igandea, 10: 19:00.



SINOPSIAK

Dantza
Zuz.: Telmo Esnal. Herr.: EH. Dantzariak: Amaia Irigoyen, Gari Otamendi, Ainara Ranera,... Iraupena: 98 minutu.

Donostiako Zinemaldiko perla

Aurkezpen ekitaldia jaialdi garrantzitsuan egin zuten, eta geroztik milaka ikuslek ikusi dute Telmo Esnalen azken filma. Ardatza, izenburuak dioen bezala, dantza da.



Una cuestion de genero
Zuz.: Mimi Leder. Herr.: AEB (2018). Aktoreak: Felicity Jones, Armie Hammer, Justin Theroux, Jack Reynor. Iraupena: 120 minutu. Generoa: Biografia, drama.

Berdintasun eskubidearen alde

Ruth Bader Ginsburg-en (Felicity Jones) benetako bizitzan oinarritutako filma da, asteburuan Basteron eskainiko dutena. Protagonista abokatu gaztea eta senar-emaztea dira. Genero diskriminazio kasu berezi baten ondorioz, berdintasun eskubideari bide berria urratu zuten.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Inauterietako foto eta bideoak sarean



Andoain



Urnieta